


# Lankidetza publiko-soziala aktibatzen duten galderak.

Dagoeneko ondo funtzionatzen ari dena aitortzeko, martxan dagoena indartzeko eta egiteko modu kolektibo berriak irekitzeko gonbidapena.



## LANKIDETZA BIRPENTSATZEKO MAPA

Mapa hau laguntza-tresna moduan pentsatu da, lankidetza publiko-sozialeko zuen proiektuaren gainean hausnarketa egiteko, eskura ditugun baliabide eta gaitasunetara zuzendutako eta horiekin konektatutako begiradatik.

Bherria-n azken urteotan egindako lana aintzat hartuta, funtsezko ezaugarri batzuk identifikatu ditugu, herritar aktiboen eta Administrazio Publikoaren arteko lankidetza esanguratsua bideratzeko eta indartzeko aukera ematen dutenak.

Diseinuak metro-mapa baten itxura hartu du, bere linea eta geltoki eta guzti, horrek erakusten du lankidetza modu askotara egin daitekeela: batzuetan, zuzeneko ibilbideekin; eta, beste batzuetan, linea desberdinekin lotuz edo geltoki batean geratuz, gertatzen ari dena era zehatzagoan ikusteko.

Ezaugarri bakoitza zehazteko, zenbait gako erabili dira, geltokiekin eta dagozkien galderekin batera: hala, errazago ikusten da ezaugarri horiek zuen prozesuan duten presentzia. Ez dira errezeta bat, sarri-ara aite malgu eta praktiko bat baizik, eta bakarka nahiz taldean erabil daiteke hausnarketa eta elkarriketa sortzeko. Erreferentzia gisa balio du, bai prozesuaren hasieran, bai prozesuan zehar edo amaieran.

Mapak zentzu handiagoa hartzen du modu kokatuan erabiltzen denean; alegia, une bakoitzean taldearen eta proiektuaren bidea hobekien laguntzen duen ezaugarria aukeratzean, metroko mapa batean linea egokiena aukeratu behar balitz bezala. Hortik aurrera, identifikatu zein galdera sortzen diren berez eta zeintzuk erantzuten diren errazago; horrela, finkatutako ikaskuntzak eta dauden indarguneak ezagutu ahal izango dira.

Aldi berean, begirada lasaiaagoa behar duten geltokietan gelditzeko denbora gorde, elkarriketa berriak eta hobetzeko aukerak sortuz.

## KOMUNAREN ZERBITZURA DAUDEN JAKINTZA KOLEKTIBOAK

Dokumentu hau Bherria programaren esparruan egindako ikerketa- eta sistematizazio-lanaren parte da, lankidetza publiko-soziala definitzen duten funtsezko ezaugarrietan oinarrituta. Prozesuan hainbat arlotako 300 pertsona eta eragile baino gehiagok hartu dute parte modu aktiboan, ziurtasun, zalantza eta ikaskuntzak emanez.

Lankidetza birpentsatzeko mapa tresna-multzat baten sartzen da, eta Txostenen Gidarekin eta Ezaugarrien Sortarekin batera, baliabide praktikoa eskaintzen ditu Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko proiektuak hausnartzeko eta indartzeko.


Hiru erreminta hauek Lankidetza Publiko-Sozialaren ezaugarriak lantzeko behin-betiko tresna-kita osatzen dute: nor bere buruari galdetzeko, dokumentatzeko, hausnartzeko eta komunitatearekin lankidetzako zuen prozesuetan aurrera egiteko gonbidapena.

Eduki osoa, txosten xehatuak eta baliabide osagarriak Bherria-ren web orrialdearekin lotzen duen QR kodearen bidez eskura daitezke. Esperientzia hori sakontzeko eta ikaskuntzak partekatzeke gune irekia da.

Bherria ekimena Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Salarren Hirugarren Sektore Soziala eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko Zuzendaritzak bultzatzen du. Programaren diseinuaz eta garapenaz Komunitatik, Cola-BoraBora eta Asier Gallastegi arduratu dira.

Dokumentu hau CC-BY-SA 4.0 lizentziapean —egungo eta ondorengo bertsioak— argitaratu da, eta aukera ematen du libreak banatzeko eta eratorritako lanak sortzeko, betiere iturria aipatu eta lizentzia beraren pean partekatzen bada.

<https://bherria.eus/eu/ezaugarriak/>




## HELBURUAREN ARGITASUNA

Helburu komun bat definitzeak eta partekatzeak aukera ematen du erabakiak bideratzeko, itxaropenak lerrokatzeko eta elkarrekin egindako lanean koherentzia handiagoz aurrera egiteko.



## BIDERATZEA

Prozesuak entzuketatik, loturen zainketatik eta tentsioen kudeaketatik garatzeak, ahots guztiak adierazten eta lankidetzari eusten laguntzen du.



## EBALUAZIOA

Egiten duguna hausnarketa kritikotik eta kolektibotik berrikusteak esperientziatik ikasteko, norabidea doitzeko eta eragina indartzeko aukera ematen du.



## KOMUNIKAZIOA

Kanal irekiak eta uteragarriak ezartzeak konfiantza indartzeaz gain, prozesua ikusgarri egin eta parte hartzen dutenen arteko koordinazioa hobetzen du.




## LANKIDETZA-MODUAK

Egiturak eta akordioak malgutzeak testuinguru bakoitzera egokitzeko laguntzen du, parte-hartze aktiboa sostengatuko duen oinarri partekatu bat mantenduz.



## AURREKONTUAK ETA BALIABIDEAK

Bitarteko egokiak izatea eta gardentasunez kudeatzea funtsezkoa da proiektuen iraunkortasun, erantzukidetasun eta eraginkortasunerako.



## IREKIERA-MAILA

Informazioa errazteak eta begirada berriak sartzeak irismena zabaltzen, berrikuntza sustatzen eta inklusioa indartzen du.



## HIBRIDAZIOA

Espazio presentzialak eta digitalak modu orekatuan uztartzeak, parte-hartzea areagotzen du, loturak indartzen ditu eta lankidetza inklusiboago eta jasangarriagoa ahalbidetzen du.



## KOORDINAZIO-ESPASIOAK

Partekatzeke eta guztion artean erabakitzeke leku egonkorak sortzeak plangintza hobetzeaz gain, segurtasuna ematen dio lankidetza-prozesuari.



## SARE KOMUNITARIOA

Pertsonen eta taldeen arteko loturei eustek harreman-oinarri bat sortzen du, eta horrek prozesuei jarraipena ematen eta epe luzerako lankidetza sustatzen du.